

EXPEDIENTEA 1-2026

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
POLIZIAREN KONTROL ETA GARDENTASUN
BATZORDEAREN ERABAKIA, 2026KO
OTSAILAREN 20koa, IRUNEN BIDASOA
IBAIAN BIZILAGUN BAT DESAGERTUTAKOAN
ERTZAINZAK BURUTUTAKO JARDUKETARI
BURUZKOA**

Lehen.- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuaren 2026ko otsailaren 15eko jakinarazpena jaso eta gero, Batzorde honek, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen Testu Bateginaren 17.2.b) artikulua emandako eskumenaren arabera, ofizioz aztertuko du Ertzaintzak burututako jarduketa, lehendik aipatutako jakinarazpen horretan ondorengo testuaren bidez azalduko:

“2026ko otsailaren 15ean, 01:35 aldera, (...) ustez indarra erabiltzaile lapurtu ondoren ihesean zebilen gizon batek Bidasoa ibaira bota zuen bere burua eta, minutu batzuetan ur gainean egon ondoren, uretan hondoratu zen. Zehazki, Irungo [REDACTED] [REDACTED] [REDACTED] kaleko 24. zenbakiaren parean desagertu zen. Ondoren, desagertutako bizilaguna bilatzeko dispositiboa abian jarri zuten, Eusko Jaurlaritzaren Babes Zibilak koordinatuta.”

Gertakari horiengatik, Irungo ertzain-etxeak [REDACTED] zenbakidun atestatua osatu zuen.

Bigarrena.- Aurreko puntuan aipatutako polizia-jarduketa aztertu ahal izateko, Batzordeak Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailari honako hau eskatzea erabaki du:

a) Segurtasun-sailburuaren jakinarazpenean aipatutako polizia-jarduketa ikertzeko balizko eginbide judizialen hasieraren berri ematea, horiek gauzatzen ari diren epaitegia eta erreferentzia-zenbakia adierazita.

EXPEDIENTE 1-2026

ACUERDO DE LA COMISIÓN DE CONTROL Y TRANSPARENCIA DE LA POLICÍA DEL PAÍS VASCO DE 20 DE FEBRERO DE 2026 SOBRE LA ACTUACIÓN DE LA ERTZAINZA EN EL CURSO DE LA CUAL DESAPARECIÓ UNA PERSONA EN EL RÍO BIDASOA EN IRUN

Primero.- Habiendo recibido la comunicación remitida con fecha de 15 de febrero de 2026 del Consejero de Seguridad del Gobierno Vasco, esta Comisión, en ejercicio de la atribución conferida por el art. 17.2.b) del Texto Refundido de la Ley de Policía del País Vasco, acuerda proceder de oficio, al estudio sobre la actuación desarrollada por la Ertzaintza que, en dicha comunicación, se describe así:

“sobre las 01:35 horas del día 15 de febrero de 2026, (...) un varón, el cual huía tras cometer presuntamente un robo con fuerza, se arroj(ó) al río Bidasoa, hundiéndose en las aguas tras mantenerse a flote durante unos minutos. La desaparición se produjo a la altura del nº 24 de la calle [REDACTED] [REDACTED] de la localidad de Irún, activándose, acto seguido, un dispositivo de búsqueda de la persona desaparecida coordinado por Protección Civil del Gobierno Vasco.”

Por dichos hechos la Ertzain-etxea de Irún ha incoado el atestado de referencia [REDACTED].

Segundo.- A fin de proceder a la realización del estudio sobre la intervención policial referida en el punto anterior, la Comisión acuerda interesar del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco que:

a) Le informe sobre la eventual incoación de actuaciones judiciales de investigación acerca de la actuación policial a la que se refiere la comunicación del Consejero de Seguridad, con indicación del juzgado en el que se sustancian y de su signature de referencia.



b) Ertzaintzaren Barne Gaietarako Burutzak aipatutako polizia-jarduketan gertatutakoa argitzeko irekitako barne-ikerketako eginbideen kopia bat helaraztea.

c) Batzorde honi arestian esandako polizia-jarduketari buruzko [REDACTED] polizia-atestatuaren kopia bat helaraztea. Horren barruan agertu behar da Euskarri aplikazioan editatutako txostena, polizia-jarduketa burututako ordu-tarteari eta lekuari dagokienez.

d) Poliziaren jarduketa horretan parte hartu zuten agenteek Aginte eta Kontrol Zentroari egoeraren berri eman ote zioten jakinaraztea. Baiezkoan, komunikazio horiek bidaltzeko eskatu nahi dugu.

e) Polizia-jarduketa gertatu zen lekuan eta egunean, aipatutako polizia-jarduketaren irudiak jaso zitzaketen bideozaintzako kamerak instalatuta ote zeuden jakinaraztea. Erantzuna baiezkoa bada, aztertutako gertakarien egunari eta orduari dagozkion balizko grabazioak eskatu nahi ditugu.

f) Jarduketa horretan parte hartu zuten ertzainek banakako soin-kamerarik ote zeramaten jakinaraztea. Baiezkoan, ea kamera horiek martxan jarri eta gertatutakoa grabatu ote zuten jakin nahi dugu. Hala balitz, egindako grabazioak bidaltzeko eskatu nahi dugu.

b) Se le dé traslado de una copia de las diligencias de investigación interna abiertas por la Jefatura de Asuntos Internos de la Ertzaintza para el esclarecimiento de lo sucedido durante la actuación policial descrita.

c) Se dé traslado a esta Comisión de una copia del atestado policial [REDACTED] instruido sobre la repetida actuación policial, con inclusión del informe editado en la aplicación Euskarri respecto del tramo horario y del lugar en los que esta se produjo.

d) Se le informe de si, a lo largo de la intervención policial, se efectuaron comunicaciones de los agentes actuantes con el Centro de Mando y Control sobre las circunstancias concurrentes. Si así fuera, se solicita la remisión de dichas comunicaciones.

e) Se le informe de si en el lugar y la fecha en la que se produjo la actuación policial se encontraban instaladas cámaras de videovigilancia, que pudieran haber recogido la actuación policial considerada. En caso afirmativo, se recabe información sobre la eventual existencia de grabaciones correspondientes a la fecha y hora en la que ocurrieron los hechos objeto de estudio.

f) Se le informe de si los agentes de la Ertzaintza intervinientes portaban cámaras de cuerpo individuales durante la actuación y, en caso afirmativo, si llegaron a activarse durante su desarrollo y grabaron lo sucedido. Si así fuera, se solicita el envío de las grabaciones efectuadas.



Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren
Kontrol eta Gardentasun Batzordea
Comisión de Control y Transparencia de la
Policía del País Vasco

Azkenik, Batzorde honekin harremanetan jartzeko bide egokia ezartzeko asmoz, Ertzaintzaren Zuzendaritzari berariazko solaskidearen berri ematea eskatu nahi diogu, espediente honen izapidea arintze aldera.

Finalmente, se interesa que por la Dirección de la Ertzaintza se indique una persona de referencia para establecer el oportuno canal de comunicación con esta Comisión, a los efectos de agilizar la instrucción del presente expediente.

Bilbon, 2026ko otsailaren 20an

En Bilbao a 20 de febrero de 2026

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordekoburua

El Presidente de la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco

[Redacted signature]

Harremanetarako helbidea / Dirección de contacto: polizia-gardentasuna@euskadi.eus